



Busturiko
Udala



Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea

EGUNA / FECHA: 4/5/2016

HASIERA / INICIO: 20:40

AMAIERA / FINAL: 20:45

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA/ALCALDE

Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)

Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria

DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udaltzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak. Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai ordenaren arabera, eta honako akordio proposamenak egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen 2016ko apirilaren 20ko saioko akta.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 20 de abril de 2016.

2.- % 0,6ri buruzko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.-

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion Estatuko Administrazio Orokorrek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri duela Administrazioarekiko Auzien Bilboko 2. Epaitegian, Udalaren 2015eko abenduaren 30eko akordioaren kontra: 2015ean funts bat gaitzea zerbitzu publikoak emateko orduan modernizatzeko eta arrazionalizatzeko eta Administrazioaren produktibitatea oinarritzeko ordainsarien eta osagarrien soldata-masaren 0,6 €-ko ehunekoan hobetzeko.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen aipatu prozedurara bertaratzeko eta eskaera egitea Bizkaiko Foru Aldundiari epaiketa horretan Udalaren defentsaz Foru Erakundeko zerbitzu juridikoak ardura daitezkeen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen epaiketei begirako defentsa arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 12ko 134/2013 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera.

2.º. Recurso contencioso administrativo sobre 0,6%.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de que por parte de la Administración General del Estado se ha interpuesto un recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Bilbao, contra el acuerdo adoptado por este Ayuntamiento el 30 de diciembre de 2015, para habilitar en el ejercicio 2015 un fondo destinado a la modernización, racionalización en la prestación de los servicios públicos y mejora de la productividad de la Administración en un porcentaje del 0,6 € de la masa salarial de las retribuciones básicas y de las complementarias.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó personarse en el citado procedimiento, solicitando de la Diputación Foral que la defensa en dicho juicio de esta Corporación sea asumida por los servicios jurídicos del Ente Foral, al amparo de lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 134/2013, de 12 de noviembre, por el que se regula la defensa en juicio a las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia.

3.- Peoia hautatzeko prozesuko epaimahaia.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen ondoko pertsonak izendatzea epaimahaikide balizko txandakako lan-kontratu baterako peoia hautatzeko prozesuan:

3.º.- Tribunal del proceso de selección de peón.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó designar a las siguientes personas como miembros del tribunal encargado de la selección de un peón para un posible contrato de relevo:

	TITULARRA / TITULAR	ORDEZKOA / SUPLENTE
LEHENDAKARIA / PRESIDENTE	J. L. C. F.	S. P. L.
1. KIDEA / VOCAL 1	J. L. A. B.	A. G. L.
2. KIDEA / VOCAL 2	J. C. G. B.	S. E. O.
3. KIDEA / VOCAL 3	F. J. A. L.	J. C. A.
4. KIDEA / VOCAL 4	F. J. M. T.	J. I. A. O.
IDAZKARIA / SECRETARIO	V.-M. A. Á.	A. L. L.



4.- Urdaibaiko kontrolpeko ehiza-eremua.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamena onartzea, Urdaibaiko kontrolpeko eremua berritzeko eta Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudi zinegetikoari egokitzeko, eta baimena ematea Udal honen lursailak eremu horren jabetzakoak izan daitezen.

4.º.- Zona de caza controlada de Urdaibai.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la propuesta de la Diputación Foral de Bizkaia para la renovación y adecuación a la normativa cinegética vigente en la Comunidad Autónoma de la zona de caza controlada en Urdaibai, dando su consentimiento para que pertenezcan a la misma los terrenos que son propiedad de este Ayuntamiento.

5.- Izozi-kioskoen enkantea.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen onartzea kioskoak ezartzeko bide publikoaren erabilera pribatiboa esleitzeko baldintza-orria, baita kiosko horiek esleitzeko enkantea deitzea ere.

5.º.- Subasta de quioscos de helados.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el pliego de condiciones para la concesión de uso privativo de la vía pública mediante la instalación de quioscos y convocar subasta para la adjudicación de los mismos.

6.- Abokatuarentzako funts-zuzkidura.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen 10.000 €-ko (gehi BEZ) funts-zuzkidura egitea I. A. Z. abokatuari, San Antonioko enklabearen ezabaketari buruzko 367/11 errekurtsio arruntaren ondoriozko 57/13 epaia betearazteko ordainsariei dagokiena.

6.º.- Provisión de fondos al Letrado.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó realizar una provisión de fondos de 10.000 € más IVA al letrado I. A. Z., correspondiente a los honorarios por ejecución de la sentencia 57/13 dimanante del recurso ordinario 367/11 sobre supresión del enclave de San Antonio.

7.- Hirigintza-baimenak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak, igorritako txosten juridiko eta teknikoak ikusita, aho batez erabaki zuen honako hirigintza-baimena ematea, bertan ezarritako baldintzetan, horiek eskatzaileari jakinarazi behar izanda:

- 1.- R. I. A. (21/16 Txost.), teilatua konpontzeko, San Kristobal auzoko 5.ean, 15.397,30 €-ko aurrekontuarekin.
- 2.- A. U. B. (25/16 Txost.), teilatua konpontzeko, Axpe auzoko 71.ean, 4.477,00 €-ko aurrekontuarekin.
- 3.- M. T. V. A. (29/16 Txost.), komuna eraberritzeko, Axpe auzoko 158-4. ezkerrean, 2.935,12 €-ko aurrekontuarekin.
- 4.- C. I. R. S., Axpe auzoko 130.eko jabeen erkidegoaren izenean (30/2016 Txost.), iparraldeko fatxadako xafla metalikoak bermatzeko, Axpe auzoko 130.ean, 8.163,84 €-ko aurrekontuarekin.
- 5.- J. M. E. E. (31/16 Txost.), 9. poligonoko 35. lursaila ixteko, San Bartolome auzoan, 1.680 €-ko aurrekontuarekin.
- 6.- I. Á. C. (33/16 Txost.), azulejuak eta zolak aldatzeko bi komunetan, sukaldean eta terrazan. Komun-ontzien eta kanilen berrikuntza, instalazio elektrikoak eta iturgintza barne, eta paretan prestaketa eta pintura, Axpe auzoko 143-1. eskuinean, 15.300 €-ko aurrekontuarekin.

7.º.- Licencias urbanísticas.-

La Junta de Gobierno Local, vistos los informes emitidos, acordó, por unanimidad, conceder las siguientes licencias urbanísticas, que quedan sometidas al cumplimiento de las condiciones establecidas en el mismo, de cuyo contenido se deberá dar traslado al solicitante:

- 1.º.- R. I. A. (Expte. 21/16), para reparación de tejado, en el barrio de San Cristóbal n.º 5, con un presupuesto de 15.397,30 €.
- 2.º.- A. U. B. (Expte. 25/16), para reparación de tejado, en el barrio de Axpe, n.º 71, con un presupuesto de 4.477,00 €.
- 3.º.- M. T. V. A. (Expte. 29/16), para reforma de baño, en el barrio de Axpe, 158-4.º Izda., con un presupuesto de 2.935,12 €.
- 4.º.- C. I. R. S., en representación de la comunidad de propietarios de Axpe, 130 (Expte. 30/2016), para aseguramiento de las lamas metálicas de la fachada norte, en el barrio de Axpe, 130, con un presupuesto de 8.163,84 €.
- 5.º.- J. M. E. E. (Expte. 31/16), para cierre de la parcela 35 del polígono 9, en el barrio de San Bartolomé, con un presupuesto de 1.680 €.
- 6.º.- I. Á. C. (Expte. 33/16), para cambio de alicatados y solados en dos baños, cocina y terraza. Renovación de sanitarios y griferías con sus instalaciones eléctricas y fontanería y preparación de paredes y pintura, en el barrio de Axpe, 143-1.º Dr., con un presupuesto de 15.300 €.



8.- I. A. P.en ibilgailuaren zerga-salbuespena.-

Kontuan hartuta I. A. P.ek aurkeztutako idazkia, 2017. urterako eta hurrengoetarako BI-4408-BH matrikuladun beraren ibilgailuari dagokionez Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren salbuespena eskatzeko, fabrikatu zenetik gutxienez 25 urte igaro direla-eta, Zerga hori arautzen duen Udal Ordenantza Fiskalaren laugarren artikuluan ezarritakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaera onartzea.

Eta besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudana Idazkariak sinatuta.

Alkatea/El Alcalde,

Fdo: Aitor Aretxaga Telletxea

8.º.- Exención del impuesto del vehículo de I. A. P.-

Dada cuenta del escrito presentado por I. A. P., por el que solicita la exención, para el año 2017 y sucesivos, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, del turismo de su propiedad, matrícula BI-4408-BH, por ser un vehículo con una antigüedad mínima de 25 años desde la fecha de su fabricación, en aplicación de lo dispuesto en el artículo cuarto de la Ordenanza Fiscal municipal reguladora del Impuesto, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la solicitud presentada.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Idazkaria/El Secretario,

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez